

## GABIREL JAUREGIREN GIZA ZERTZELADATXOAK

Zientzilariak serio eta gogoeta sakonetan murgilduak begitantzen zaizkigu maiz. Baina haiek ere badute beste aldetxo bat, berezkoagoa, politagoa, gizatasunez egina. Hori, gehienetan, inguruko hurbilenekoez ezagutzen dute soilik, gainerakoentzat ezkutan gelditurik.

Aita Gabirelen biografiaren osagarri, eguneroko bizitzan zerizkion puskatxoak bildurik, haren beste irudi gizatiarragoa eskaini nahi nioke irakurleari. Giza zertzeladatxoak han eta hemen jasorik, urliari eta sandiari galdeturik, hots, lekukoen ahotik puzzle-zatiak eskuraturik, hitz-zintzelez eraikiko dut iruditxo hau.

Irakurleari, lerro hauetan zehar ziri-zara begiak pasatu ahala, irrika piztuko zaio, agian. Neuri ere, puska hauek eskuetan ditudala, jakinminak zirri egiten dit barnean, azkenean guztia zertan gauzatuko den ez baitakit... Baina goazen lekukoez emandako puzzle hauek gidari direla, berauen lorratzean.

Txikitakorik ez dut ezer bildu eta, jakina, lekuko guztiak harekin bizi izan ziren karmeldarrak dira, ia guztiak Aita Gabirelen ikasle izandakoak. Hona hemen izenak: Joan Iturregi, Jose Frantzisko Ibarria, Miguel Angel Batiz eta Teodoro Zubizarreta. Harekin bizi izan ziren hauek gainera, gauzatxo bat edo beste haren iloba Patxi Uribarrenengandik ere jaso dut. Hauek esandako guztiak neure erara eta idazkera aldetik batasun bat emanez agertuko ditut.

Lekuko batek hauxe diosku: Gauza handirik ez dut adieraziko hartaz, baina bai gogoz eta eskerronez, berak begi onez ikusten baininduen. Gasteizen ezagutu nuen 1928tik 1931ra bitartean. Ez dakit urtero zen ala ez, baina oporretan euskarazko klase batzuk ematen zizkigun. Nik arreta handiz jarraitzen nituen klaseok, eta horregatik edo, maite ninduen. Zientzietako gaiak ere ematen zituen oporretan. Hauek guztiak, jakina, borondatezkoak ziren.

Garai hartan nire aitona, nahiko zaharra, ez zen gauza Gasteizera etortzeko. Orduan Aita Gabireli eskatu nion, mesedez, argazkitxo bat egiteko, eta bai pozik egin ere.

Gu ikasle ginela, irakasleen urtebetetze egunetan bigira edo beladatxoak izaten ziren. Horrelakoetan, hitzaldi txikiak, errezitaldiak egitea izan ohi zen nire gurari bizia. Horretaz oharturik, kurtso amaierako azterketa batean, 103. salmoa *Jainko kreatzaile eta zaindariari goratzarrea* buruz ikasi eta jendaurrean deklamatzeko agindu zidan. Hala egin nuen, gogotsu egin ere.

*Pisia* egiteko ez dut uste lagungarri handirik zuenik, baina bera saiatua zen; behin pentsatuz gero, etsi gabe ekin eta ekin egiten zuenatarikoa. Guk maiz ikusten genuen bere lanerako lagungarri izan litezkeenak eskuratzen, argazkiak egiten...

Isila zen eta asko pentsatzen zuena. Bere baitan gogoetaka, behin eta berriro aldekoak eta aurkakoak parez pare jarri eta aztertzen zituen.

Hitz gutxikoa zenez gero, adiskide handirik ez zuela izango zirudien. Baina bestera zen: adiskide min-minak zituen, alde batean eta bestean. Horregatik edo, garai larri haie-tan, haren antzeko euskaltzale eta abertzale asko espetxeratuak zirenean, bera aske gelditu zen. Hor ere esatera zaharrak dioena beteko zen: "ukondo ona duena ez da gaizki izango".

Sen onekoa zen eta intuizio bereziak izaten zituen: behin bere herriko apaizak hitzaldi bat egiteko eskatu zion. Sei hilabete aurretik eskatu ere, eta Gabirelek, osasunez bere burua hain ongi ikusi ez eta, erantzun omen zion: "oraindik biziko nazala uste dot". Halaxe gertatu zen: bete ahal izan zuen zeregintxo hori, baina handik laster hil zen.

Sintesirako gaitasun aparta zuen. Ez zen berbalduna. Areago oraindik, hiztun txarra zen, baina beste baliabide batzuk zituen; esaterako, laburpenak, grafikoak, eskemak egiteko erraztasuna. Arbelean egoki konpontzen zen. Irakasle izateko titulu ofizialak lortu beharra izan zuen. Garai hartan "Bachillerato Universitario" zeritzon karrera egin zuen bere kontura. Oviedon izan zituen azterketak. Hor gertaturikoak hots handia atera zuen gure artean: matematika edo zientzietako azterketa izango zen, gaia hitzez azaltzeko nahiko zail egiten zitzaiola eta, arbelean azaltzen uzteko eskatu omen zien tribunalekoei. Ahoz azaldu ezin zuena ezin hobeki azaldu eta frogatu omen zuen han, irakasle guztiak aho-zabalik utziz.

Lekuko honek oraindik beste gauzatxo bat ere esan dit, haren sintesirako gaitasuna adierazteko: eliz hitzaldiak egiterakoan, papera aurrean izaterik ez zen onartzen garai hartan. Horregatik, Aita Gabirelek sarri-sarri begiratzen zuen sakeleko erlojura, haren atzeko aldean eramaten baitzuen batzuetan hitzaldiaren laburpena.

Beste lekuko batek Larrean nobizio zela ezagutu zuen Aita Gabirel. Nobizioek, pixka bat aparte bizi arren, jakiten zituzten zenbait gauza. Neguko egun batean Aita Gabirel kanpotik etorri zen komentura zapata gorakoekin edo bota handiekin. Bere gelan sartzeraz zihoela, fraide batek, Joan Antonino zaharrak esan zion: "- Padre, ¡qué ruido mete con esas botas!" Eta Aita Gabirelek erantzun: "No meto, saco ruido".

Nobizio ginela elizan egiten ziren sermoiak entzuten genituen, dio lekuko berak. Aita Gabirelek San Isidro eguneko sermoia izan zuen eta honela hasi zen, latinezko testua aipatuz: "Pater meus agricola est" (Jn.15,1): "Nire aita lugiña da". Ez dakit sermoiazen haria nola joan zen, baina guri barregura itzela eman zigun sermoia hasteko modu horrek...

Beste behin, gure Ama Santa Teresaren eguneko hitzaldian “Santa Teresa eta ur bedeinkatua” hartu zuen gaitzat; eta Akinoko Tomas Santua ere esaten ausartu ez zen gauzak esaten dizkigula Santa Teresak ur bedeinkatuari buruz, esan zuen beste gauza askoren artean.

Haren ikasleek diotenez, irakasle ona eta argia zen, baina hitz-jario urrikoa, eta azalpenetan esaldi bitxiak erabiltzen zituen batzuetan. Esaterako, fisikan, *korronte jarraia* “va, va, va, va” zela esaten zuen eta *korronte alternoa* va-viene, va-viene, va-viene”. Solenoide ere honela azaltzen omen zien: “hilo, hilo, hilo / carrete, carrete, carrete”.

Ikasleei nota berdinak jartzen zizkien, onak. Ia beti nota osoak, hots, zenbaki biribilak. Bere izaera adierazten da hor. Txikikeriei begira egotekoa ez zen. Urte batean, norbaitek esanda edo, nota desberdinak jartzen hasi zen, baina gero ere berdintsuak izan ohi ziren. Bati bakarrik jarri zion “suspensio”. Ongi merezia ziur asko... Hurrengo urteko ikasleen zerrendan ez da agertzen eta etxera edo, bidaliko zuten, beharbada.

Izadiko eta teknika arloko gauzak arreta biziz hartzen zituen.

Irrati-aparatu zaharren bat eskuratu zuen behin. Haren poza! Haur bat jostailu berriarekin baino pozago omen zebilen. Lagunei deitu eta “begira, begira” esanez, erakusten eta entzunarazten jarduten zuen. Zertxobait ulertzeko ahaleginak egiten... Ikaragarriko zaparrada egiten zuen eta ez zen ezer ulertzen. Trasto zaharren bat zen, kontizu, baina ilusioa zer den, gero!

Gauza teknikoak erakargarriak ziren harentzat. Argazki-makina oso maite zuen. Txitean-pitean ikusten genuen argazkiak egiten. Gutxi, baina badira oraindik hark egindako eklipse banakak.

Astronomiari dagozkion gaietan, zientzi gai guztietan bezala, jakintsua zen. Badakigu *Karmen'go Argia* aldizkarian (oraingo *Karmelen* aurretikoan) “Zeruko izarren goraberak” izenburupean hainbat idazlan argitaratu zituela. Hor agertzen dira, besteak beste, eguzki eta ilargiaren ilunaldiak, eklipseak. Gertakari edo fenomeno horietan buru eta bihotz sartu ohi zen. Horrelako batean, 1931ko irailaren 26an izan zitekeen, agian, data horretan arratsaldeko 6etatik 8 t'erdietara izan baitzen ilargi eklipse osoa, Errioxako Valdezkarai mendiko tontorreraino joan zen eklipsea ikusi ahal izateko.

Etxean, kalean, batzuekin nahiz besteekin solasean ari zela, koadernotxo atera eta oharrak idazten zituen. Beste edonorentzat hutsaren hurrengo ziren xehetasunak, harentzat interesgarri ziren. *Zientzilariaren jakinmina!*

Ia lekuko guztiek azpimarratzen dute aho batez haren bihotz ona jendearekin. Gas-teizen batez ere etxe-etxeko zen familia askotan. Berak ere adiskideak ongi zaintzen zekien. Horretarako, ez zuen gauza berezirik egiten: berezko izaera ona nahikoa zen, jendearen ezbeharrez errukitu, aholku onak eman eta ahal zuen guztian lagundu. Ez da gutxi, ez da? Gazteei ere, behin baino sarriago eman izan zien aholku hau: adiskiderik ez bilatzeko pertsona banakoetan, familietan baizik.

Aurreko horrekin loturik doa lekukorik gehienek aitortzen dutena ere: Gose-urteak ziren eta Larrean komentu bete fraide bizi zen; nobizio gazteak ere mordoa eta Aita Gabirel komunitateko diruzain, ekonomo zen. Berak egin beharko zuen, nondik edo handik,

haiek guztiak janaritzeko modua. Eta benetan trebea omen zen horretarako. Han eta hemen zituen adiskideek lagundurik, bakailao ugari samar lortzen omen zuen; horrela, parte bat salduz eta, eskuratu ahal izaten zituen etxerako premiazkoenak zirenak. Urte latz haietan, horregatio, premia gorrian zeuden eta, Larreako jauregi zaharreko harriak eta haga edo gapirio luzeak saldu beharra izan zuen. Lekukoetariko batek nahigabez gogoratzen digu hori, jauregiko ikastetxe zahar hura txoko maitea baitzen han ikasi zuten guztientzat.

Gabirelen arrebarik gazteena, Ana, oraindik bizi da. Hura karmeldar sartu zenean, txikitxo zen hau; sei-zazpi urtekoa. Horregatik, honekin baino harreman sakonagoak izango zituen Gabirelek adin berdintsuko besteekin, hala gertatu ohi da haurtzaroan eta. Gero bai, gero arreba hau izan zuen Gabirelek familian maiteenetarikoa. Dena dela, Anak aitortu zigunez, Angelo ia fraide benetakoagotzat zuten familian Gabirel baino. Haiek zuten fraide-irudia Angelorengan gauzatzen zela dirudi, eta ez hainbeste Gabirelengan. Zergatik? Angelo fraide klasikoa zen; Gabirel, ordea, bizi-bizia agertzen zen Aramaiora joaten zenean, argazkiak egiten, harriak eta beste gauza batzuk biltzen. Beste aldetik, Errepublika garaia zen Oviedora azterketak egitera joan zenean, eta kaleko jantzirik joan behar izan zuen, ez abitu erlijiosoz. Azgazki batzuk ere bazituen horrela. Hori guztiori modernoegia ez ote fraide petoa izateko...? Harriak eta beste gauza batzuk biltzeko joera hori dela eta, Patxi Uribarrenek esandako zertxo bat dakart lerro hauetara: Gabirelen aita-jauinak trabuko bat zuen etxean lapur bati kenduta. Joan den mendekoa zen eta, beste gauza batzuen artean, Aita Gabirelek bildu zuen hura eta Gasteizko Karmeldarren Ikasteteko Natur Zientzietako Kabinetera eraman.

Beste lekuko batek haren gaixoaldi eta heriotzaz zenbait gauzatxo kontatu dizkit:

Gaixotu zenean, penizilina bidali zion Angelok Portugaletik. Hiru ordurik behin ematen zion medikuak. Baina ez zuen hoberantz egin.

Hil zen egunean, Angelo etorri zen. Ikusi, agurtu eta Gabirelek: “beste mundura arte! ondo jarraitu”. Elkar ikusi eta segidan hil zen. Angelok bazkal orduan esan zuen: “neure zain egon dala esan leiteke, agurtu eta hiltzeko!”

Bi anaiak, Gabirel eta Angelo, biak batera agertuko zaizkigu maiz *Karmelen* zenbaki honetan, eta Angelori gertaturiko gauzatxo batez hornituko dut kontaketa-hari hau:

Gabirelek intuizio berezia zuen gauza batzuetarako, goiko hainbat kasutan ageri denez. Angelok ere bazituen honelakoak, eta telepatia-kasu bat kontatu zidaten: Ameriketako komentuetan, Txilen bereziki, urte asko eman zituen Angelok eta, han zela, aita hil zitzaion. Angelok, inork adierazi gabe, telepatiaz jakin zuen gertakari triste horren berri, hitz hauek entzun zituelarik: “Jose non dago?”. *Angelo* Ordena barruko izena zen, baina haren benetako izena *Jose* zen, eta aitak hartaz galdetzen zuen heriotz orduan. Halaxe izan zen eta horrela adierazi zioten gero: beratzaz galdetuz hil zela aita.

Hona, irakurle, Aita Gabirelen giza zertzeladatxoz osatu ahal izan dudan irudi xumea. Ez dakit ganorazko ezer burutuko nuenentz. Hark egin ohi zituen argazkien antzera, nik ere, lekukoen esanera, haren ezkutuko aldea, gizatasunez beteriko aldea, argitara atera nahi izan dut.

*Luis Baraiazarra Txertudi*